



# IKASTETXEARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

## **1.- HEZKUNTZA PROIEKTUA:** D ereduko ikastetxea.

### **1.1.- HAUR HEZKUNTZA:**

- Dena euskaraz lantzen da, ingelesa ezik.
- Mugimendu autonomia eta proiektuen bidez landuko dituzte material kurrikularrak. Hurrek jolasa, manipulazioa eta esperimentazioaren bidez ikasiko dute.
- Proiektuei dagokionez bi proiektu finko garatzen dituzte ikasturtean zehar eta gainerakoak ikasleen interesengandik sortzen direnak.
- Ingelesa eta musika 4 urtetik aurrera.
- IKT-ak: ikasgelak arbel digitala eta programa interaktiboz horniturik daude hainbat eduki landu ahal izateko.
- Euskara indartzeko kanpainak. “**Argitxo**”.
- Irakur zaletasuna bultzatzeko “**Bularretik mintzora**” proiektua.
- Etapa honetako ekintza bereziak: zinemara filma bat ikustera (4-5 urtekoak), txotxongilo emanaldia, danborrada, inauteriak, ...

### **1.2.- LEHEN HEZKUNTZA:**

- Matematika: Luis Peredaren materiala.
- Euskara, inguru eta gaztelania: TXANELA materiala.
- Ingelesa: Artigal, Eleanitz eta EKI.
- Plastika: ingelesez ematen da.
- Musika: Txanelan oinarritutako programazioa.
- IKT-ak arlo kurrikular ezberdinetako edukiak lantzeko:
  - Informatika gela.
  - Gela bakoitzean ordenagailu bat eta arbel digital bat.
  - 5. eta 6. Mailak Eskola 2.0 azpiegituraz hornituta.
- Euskara indartzeko kanpainak.



- L.H. ko talde guztiak igeriketako 10 saio (hiruhilabete bat).
- Eskolaz kanpoko ekintzak: multikirolak, zirkoa, ingelesa, ...

## **2.- IKASTETXEKO PROIEKTUAK:**

- *Eskolako Agenda 21.*
- *Ikastetxeko IKT proiektua.*
- *Bizikidetza proiektua.*
- *Hizkuntza Normalkuntzarako Plana.*
- *Hezkidetza Plana.*

## **3.- LAGUNTZA ZERBITZUAK:**

### 3.1.- Ikastetxeko laguntza zerbitzua:

- Aholkularia
- PT-ak
- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- A.L.E.

### 3.2.- Berritzeguneko laguntza zerbitzua:

- HPBetako arduraduna.
- Fisioterapeuta.
- Terapeuta okupazionala.
- CRI-eko laguntzailea.

### 3.3.- Udaletxeko laguntza zerbitzua:

**FAZ:** seme-alabak dituzten familientzako arreta zerbitzua (hezkuntza, gizarte eta familia mailako arazoak gainditzen laguntzeko Udaletxeko Gizarte zerbitzua).



#### **4.- IKASTETXEKO EKINTZA OSAGARRIAK:**

Helburua: Euskal Herriko ohiturak ezagutu eta euskal kultura eta euskararen erabilera bultzatu. Horretarako kanpainak, euskararen astea eta euskal kulturarekin lotutako jaiak eta ospakizunak antolatzen dira: Gaztañerre, San Martin, Santo Tomas, Gabonak, Santa Ageda, Inauteriak, Korrika,...

#### **5.- IRTEERAK:**

- Euskal-girotze egonaldiak: 2 egun (H.H.) eta 3 egun (L.H.2. eta 4. mailan).
- Ski irteera: 2 egun (L.H.5. eta 6. mailak).
- Proiektuekin lotutako eguneko irteerak ikasturtean zehar.
- Ikasturte bukaerako irteerak

#### **6.- I.G.E. Ikasleen Guraso Elkarte:**

Ikasleen gurasoak dira Ikastetxeko Gurasoen Elkarteko bazkide. IGEko (Ikasleen Gurasoen Elkarte) partaideek OOG-ean eta batzorde ezberdinetan parte hartzen dute eta proposamenak aurkezten dituzte OOG-an hauek erabaki beharreko gaien inguruan. Guraso Elkarteak ematen duen laguntza ekonomikoari esker, ikasleek aukera dute eskolaz kanpoko hainbat ekintzetan eta ikastetxeko ekintza osagarrietan parte hartzeko.

ANAITASUNA IGE

Kuotekin zer ordaintzen da?

1. Ikastolako funtzionamendua

- Arbelak digitala
- Hezkidetzak: Patioko ordenazio berria, jolasak
- Laborategia



## ANAITASUNA IKASTOLA

- Eskolako Materiala

2. Formazioa: Guraso eta ikasleei (opera, zarzuela, ciber-segurtasuna,...)
3. Eskolaz Kanpoko Ekintzak (EKE): Antzerkia eta Jolasak
4. Gainontzako EKE-en antolakuntza
5. Eskola Kirola: Atletismo, Futbola, Eskubaloia, Multikirola...
6. Igeriketa Kanpainia
7. Jaiak: Ikastolako Jaia, Olentzero, Gaztañerre, Santo Tomas,...
8. Irteerak: Eguneko irteerak, Barnetegiak (Baratze, Trinkete,...), Eskia,...  
Bai egonaldia bai autobusa.

Batzorde desberdinetan banaturik dago eta bakoitzak bere zereginak eta ardurak ditu. Hauekin kontaktuan jartzeko:

Zaintza zerbitzua: [anaitasunazaintza@gmail.com](mailto:anaitasunazaintza@gmail.com)

Eskolaz Kanpoko Ekintzak: [ekeanaitasuna@gmail.com](mailto:ekeanaitasuna@gmail.com)

Kirolak: [kirolakanaitasuna@gmail.com](mailto:kirolakanaitasuna@gmail.com)

Jantokiko Batzordea: [ige.jantokia.anaitasuna@gmail.com](mailto:ige.jantokia.anaitasuna@gmail.com)

Hezkidetza: [hezkidetzanaitasuna@gmail.com](mailto:hezkidetzanaitasuna@gmail.com)

Jai Batzordea: [jaibatzordeaikastolaanaitasuna@gmail.com](mailto:jaibatzordeaikastolaanaitasuna@gmail.com)

Autobusa: [anaitasunabus@gmail.com](mailto:anaitasunabus@gmail.com)

Zuzendaritza Batzordea: [anaitasunampa@gmail.com](mailto:anaitasunampa@gmail.com)

IGE-ri buruzko informazio gehiago euren blog-ean lor daiteke: <http://ampaanaitasuna.blogspot.com.es/>



## **7.- ESKOLA KONTSEILUA-OOG (Ordezkaritza Organo Gorena):**

Eskola Kontseilua da ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena, eta bertan hartzen dira ikastetxeari dagozkion erabakirik garrantzitsuenak.

H.H. eta L.H-ko Eskola Kontseilua 30 partaidez osatuta dago: gurasoak (15), irakasleak (10), Udaleko ordezkaria (1), Administrazio eta zerbitzuetako ordezkaria (1), Idazkaria (1), Ikasketa burua (1) eta Zuzendaria (1).

Partaideak 4 urtetik behin berrizten dira (erdiak).

Eskola Kontseiluko partaideekin eratzen dira Batzorde ezberdinak: iraunkorra, ekonomikoa, pedagogikoa, kirolekoa, liburuen kudeaketarakoa, jai batzordea eta Euskara batzordea.

## **8.- ZERBITZUAK:**

- AUTOBUSA

Anaitasuna Ikastolako I.G.E.ko batzorde batek kudeatzen du zerbitzu hau. Zerbitzu pribatua da eta erabilera lehentasuna HPB-ko ikasleek, ikasle txikienek eta urrutien bizi direnek dute.

Zerbitzu honetan begirale bi aritzen dira. Lehenengo txandako ikasleak begirale batek zaintzen ditu ikastolan, bigarren txandakoak iritsi arte.

Zerbitzu honek bi edo lau bidai egiteko aukera eskaintzen du.

Goizez zein arratsalde, autobusa erabiltzeko txanda bi daude, ibilbidearen arabera.

Lehenengo txandaren ordutegia errespetatuko da (08:20). Gainontzeko ordutegiak, trafikoaren menpe egongo direnez, gutxi gorabeherakoak dira.



## ANAITASUNA IKASTOLA

Edozein informazio jasotzeko IGE-ko arduradunekin kontaktuan jarri zaitezke helbide elektronikoa honetan: [anaitasunabus@gmail.com](mailto:anaitasunabus@gmail.com).

### • JANTOKIA

Eskolako jantokia gure ikastetxearen gunea bat da, beraz, gunea hezitzailea da. Anaitasuna Ikastola HLHI-k kudeatzen duena.

Bi jangela ditugu, bata Haur Hezkuntzako umeentzat eta bestea Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Momentu honetan 236 mahaikide ditugu.

Astelehen, astearte eta ostegunetan ikasleek bi txandatan bazkaltzen dute:

- 12:30ean HH-ko ikasleak eta LH 1. eta 2. zikloko ikasleak;
- 13:30ean LH 3. zikloko ikasleak.

Eguneroko bazkaria Auzo-Lagun enpresak prestatzen du. Sukaldean 4 langile aritzen dira. Ikasturte honetan 12 begirale ditugu. Begiraleak ere

hezitzaileak dira jantokian. Jaten laguntzen diete eta jaten dutena, nola jaten duten, zenbat eta abar kontrolatzen dute eta jolastokian haien harremanak, ekintzetan parte hartzea, haien jolasak, segurtasuna... zaintzen dute.

Bazkari aurreko edo bazkalosteko atsedenaldira, txandaren arabera, ikasleek haien adinera egokitzen den atsedenerako edo jolaserako gunek dituzte. 2 urteko ikasleek lo kuluxka botatzen dute haien geletan. Gainerako ikasleentzako ekintza ezberdinak antolatzen dira gunen ezberdinetan: mahai jolasak...

### HARREMANETARAKO KONTAKTOA

T. 688 614 467 (Whatsapp ere hartzen da)

[jantokia@anaitasunaikastola.net](mailto:jantokia@anaitasunaikastola.net)



## ANAITASUNA IKASTOLA

- ZAINZA GELA

Zaintza Zerbitzua borondate onenarekin sortzen da, familiek duten arazo eta ordutegiari erantzuna bilatu asmoz.

Zerbitzuaren kudeaketa IGE-ko komisio batek darama EREMU AKADEMIAREN laguntzaz.

EUSKARAREN erabilera sustatzen da.

Haur hezkuntzako (HH) eta Lehen Hezkuntzako (LH) 6.maila arteko ikasleei zuzenduta dago.

Zerbitzua ONGARAI HLHI-ri eta SAN PELAIO IKASTETXEA-ri ere luzatzen zaie.

Zaintza gelan gosaltzen ematen da. Amankomuneko kaxa edo diru bote bat jartzen da.

Goizez, klaseak hasi aurretik, 07.30h-tik 09.00h-etara (progresiboki sartu ahal delarik).

Zaintza Zerbitzua eskola egunetan soilik gauzatzen da, Eskolako Egutegiaren arabera.

Beharren eta eskaeraren arabera Zerbitzua arratsaldean ematea planteatuko da.

Prezioa 55€/hileko izango da ume bakoitzeko (gutxienean 10 haurrentzat).

Posible da haurra egun solte batez eramatea 7€ ordainduta egun horregatik, edozein delarik arrazoi edota urgutzia. Momentuan ordainduko da, bertan, Zaintza Gelan.

Nahiz eta haurra asteko 2, 3 edota 4 egun soilik eraman, kuota osoa ordainduko da.



## ANAITASUNA IKASTOLA

Zaintza Gela erabiltzeko konpromisoa ikasturte guztirako da (10 hilabete). Ezin da hilabetea kontratatu. Pentsa diru horrekin kontatzen dela monitorea, segurantza soziala, materiala eta gelaren aseguruia ordaintzeko.

Ordainketak hilabetearen hasieran gauzatuko dira banketxe helbideratze bidez.

Bi urteko ikasle edo haur hasi berriei iraileko egokitzapen hilabetea kontuan hartuko zaie.

Luzera, haur bat baino gehiago aportatzen duten familiei, deskontuak aplikatuko zaizkie.

Edozein zalantza izanez gero jar zaitezte kontaktuan IGEko arduradunarekin email honen bitartez [anaitasunazaintza@gmail.com](mailto:anaitasunazaintza@gmail.com) edota telefono honetara deituz 943 170 188 (EREMU AKADEMIA).